

KALASANZ KIDEAK (3-5 urte)

"Jesus da Zure Sustraia: Eskolapioen adiskidetasun zuhaitza"

Norentzako zuzendua: 3 - 5 urte bitarteko haurrak (Haur Pastoraltza).

Gai Nagusia: Itaka Escolapios fundazioaren 25. urteurren ospakizuna.

Leloa: "Zure Sustraia" (Jesus, besteen zerbitzura eta Calasanz). 25 urte sustraiak zabaltzen.

Iraupena: 30 - 45 minutu

Helburua: Hurrek uler dezatela, modu dibertigarrian, Jesus dela 25 urte hauetan San Jose de Calasanz eta Itaka Escolapios-en ereduari jarraitu eta gure zaindariaren zeregina indartzeko indarra ematen digun sustraia.

Jardueraren garapena:

1. **Sarrera:** Adiskidetasunaren borobila (5-10 minutu)

A) Harrera eta Otoitza

- Jesusi edo adiskidetasunari buruz hitz egiten duen abesti erraz batekin hasiko gara.

Proposamena: **Nire maitasun sustraia (adibide moduan sortua, moldatu nahi bezala)**

(Melodia ezagun eta simple batekin abestu, "maritxu nora zoaz" adibidez)

Estrofa	Letra	Ekintza/mugimendua
Estrofa 1	Zuhaitz txiki bat naiz, hazi nahi duena, eta nire sustraia oso indartsua da Ba al dakizu zergatik den hain indartsua	Besoak gora, zuhaitz bat bezala.
guztiak	Jesusek eman dit behar nuen argia Tralarala ra trala ra laaa.....	Oinarria (lurra) eta gero zerua seinatu.
Estrofa 2	Jesusek zaintzen nau, txiki txikitatik Maitasuna eman digu jaio ginenetik. Calasanz zioen beti laguntzeko	Joan edo buelta bat eman.
guztiak	Maitasuna erakutsiz beti prest egoteko Tralarala ra trala ra laaa.....	Bihotza bi eskuekin seinatu

KALASANZ KIDEAK (3-5 urte)

- Leloaren aurkezpena: Sustrai ikusgarriak dituen zuhaitz handi eta indartsu baten irudia erakutsi.

Galdera: "Zer behar du zuhaitz batek indartsu egoteko eta altuera hazteko?" (Ura, eguzkia, sustrai sendoak...)

Azaldu: "Jesus da gure sustrairik sendoena" (Jesusen marrazki bat erakutsi). Lagun onak izateko eta besteei lagunduz hazteko indarra ematen digu. Eskolapioen aurtengo lema "**Zure sustraia**" denez, aurten Itaka-escolapios fundazioko kanpainak ere lema honen zati bat hartu du "**25 urte sustraiak zabaltzen**" lemarekin.

Ipuin baten bidez azaltzen dugu

Sustraiaren Altxorra: Jesus eta Calasanz (10-15 minutu)

Ipuinerako gidoia

- **Narratzailea (dinamizatzaile):** "Kaixo! Begira, hemen oso txikia den hazitxo bat daukat. Hazi honek zuhaitz erraldoia bilakatu nahi zuen. Baina hazteko, zer beharko luke? Sustrai sendoak!" (Sustraiak nondik doazen keinua egin).
- **Jesusen aurkezpena:** "Gure haziak "Bihotza" du izena eta bere Sustrai Jesusen maitasuna da (Jesusen marrazkia erakutsi). Jesusik gabe, hazia ez da hazten!"
- **Calasanz (enborra):** "Jesusek lagun oso berezi bati hitz egin zion, San Jose de Calasanz (bere irudia erakutsi). Calasanz-ek Jesusi entzun zion eta esan zuen: "Haur guztiak eskolara joan beharko lirateke, lagundu nahi diet!". Calasanz orduan, Jesusen sustraia jarraituko zuen enbor indartsuan bihurtu zen".
- **Itaka-Escolapios (hazkundera):** "Itaka-Escolapios fundazioa, Calasanz den enbor sendo horretatik ateratzen den adar luzea da. 25 urte dira adar hau hazten ari dela eta mundu osoan zehar laguntza bihotzak banatzen ari dela".
- **Fruitua (zerbitzua):** "Eta begira zuhaitz honen oparia zein den : Fruitu asko jasotzea! Fruitu hau eskolara joaten diren haur guztian irria eta poza da.

Jangelen proiektuen fitxa ikus dezakegu (proiektu guztien fitxak [hemen](#))

Lanean hasiko gara: Gure Zuhaitza eraikitzen (15-20 minutu)

A. Beharrezko Materialak

- Enbor eta sustrai handi batzuen marrazkiak dituzten kartel edo kartulina handi batzuk (historik eta fruiturik gabeko zuhaitza osatuz).
- Jesusen aurpegi irribarretsu baten marrazkia (sustraiaren itsasteko).
- San Jose de Calasanz marrazki polit bat eta "Itaka-Escolapios" (enborrerako) logoa. (Calasanz [hemen](#) eta Itaka – Escolapios logoa [hemen](#))

KALASANZ KIDEAK (3-5 urte)

- Koloretako paperetan inprimatutako bihatz txiki asko. Moztuta banatuko ditugu (gorria, horia, berdea).
- Goma, kola eta zelo.

B. Garapena: Gure Fedea itsasten

1. Sustrai indartsua: Jesusen aurpegiaren marrazkia itsatsiko dugu sustraian gainean. Hau esanez: "Jesus gure sustraia da".
2. Enbor sendoa: Calasanzen irudia eta "Itaka-Escolapios" logoa enborrean.
3. Zerbitzuaren fruituak: Hurrei bihotzak banatuko zaizkie. Azalduko diegu, bihotz bakoitza besteei egin diezaiekegun ekintza positibo bat izango dela (zerbitzua).
 - Galdetu haur bakoitzari: "Nola lagunduko duzu norbait gaur?" (Elkarbanatu, besarkatuz, jasotzen lagunduz).
 - Ozen besteen aurrean esan ahala, bihotza enborrean edo zuhaitzaren adarretan itsatsiko dute (zerbitzuaren fruituak).
4. Lekurik baduzu, beste herrialde batzuetako haurren marrazkiak itsatsi ditzakezu, "fruituen" (bihotzak) inguruan. Azaldu jartzen ditugun bihotzek beste haur batzuek eskola izan dezaten eta zorientsuak izan daitezen laguntzen dutela, Itaka-Escolapios-ek egiten duen bezala.

Jardueraren amaiera:

- **Otoitz momentua:** Hurrei eskuak lotu eta Jesusi eskerrak emateko azalduko diegu, guztion maitasun sustraia delako.
- **Zerbitzu-keinuak:** Hurrei zerbitzu-keinu **txiki bat egitera** animatuko diegu:
 - Lurrean geratu diren bihotz edo material guztiak jasotzen laguntzea.
 - Lagun bati besarkada bat eman eta "maite zaitut" esanez.
 - Ikasi dugun abestia berriz abestea

Eranskinak:

Beste ikastetxe batzuetako haurren aurpegi argazkiak.

Ikastetxeei laguntzeko fitxa

KALASANZ KIDEAK (3-5 urte)



AFRIKA



BOLIVIA (ANZALDO)

KALASANZ KIDEAK (3-5 urte)



BOLIVIA SANTA CRUZ DE LA SIERRA



INDIA



KONGOKO DOMINIKAR ERREPUBLIKA